



## ‘EZ BADUGU ZERBAIT EGITEN BALITEKE ITSASOAK ZUMAIA JATEA’

Ignacio Zearreta zumaiaiko herritar bat.

Gaurko egunean 2050. urtean zumaia nola izango den hitz egingo dugu. Poblazioa, arkitektura, garraioa, ekonomia eta lurraren zabalera bezelako kontzeptuak aztertzen, eta zein hobeto gure herritar baten iritzia esagutuz.

### **1.Zure ustez itsasoa gure ekonomia iturri izaten jarraituko al da?**

Orain zumaian, itasora begira industria asko daude Astilleros Balenciaga etabar, eta iturri hau oso garrantzitsua da, hori dela eta nire ustez, bai, itsasoa jarraituko du gure iturri ekonomikoa izaten.

### **2.Klima aldaketarik egongo al da zure ustez?**

Klima aldaketa mundu osoan gertatzen ari den arazo bat da eta hemen ere tokatuko zaigu.

### **3.Zumaiaren azalera zabalduko dela uste al duzu?**

Bai, nire ustez bai, zumaia ez da oso handia, baina ur maila igotzen hari dela eta inguruko mendiak aprobetxatuko dira.

### **4.Zientifikoek diote urtero itsasoak zumaia erasotzeko aukera gehiago daudela.Zer diozu honi begira?**

Zumaiako lur asko itsasoaren maila berdinean daude, poloen urtzea dela eta ur maila igo dezake eta lur horiek uholdatu daitezke, ez badugu zeozer egiten baliteke itsasoak zumaia jatea.

### **5.Gaur egungo garraioa mantendu ala aldatu egingo dela uste al duzu?**

Nire ustez gaur egungo garraioa, kotxea, trena etabar, mantenduko dira baina teknologia berritzen hari dela eta beste garraio batzuk ere sortuko dira.

### **6.Zumaiko biztanleria handitu ala txikitu egingo dela uste duzu?**

Itsasoaren ondoan dauden herriak oso erakargarriak dira, nire uste handitu egingo da, egia da ur mailaren arazoa dugula, baina ondo egokituko gara eta denborarekin biztanleria handitu egingo da.

### **7.Gizartearen zer aurrerapen gustatuko litzaizkizuke egotea?**

Niri gustatuko litzaidake arlo askotan aurrerapenak egotea, adibidez: teknologian areagotzea, medikuntzaren aldetik, minbiziaren aurka medikazio berriak sortzea, eta gizarte mailan desberdintasunik ez egotea.

### **8. Zumaiko arkitekturan aldaketarik egongo al da?**

Bai, gauzak datozen bezala gizartea egokitu egiten da eta Zumaiian, ur mailaren igoera dela eta norbaitek sortuko du arkitektura modu berri bat horri aurka egiteko.